

“ ”

Azoka hedatzen ari gara, baina gure neurrian, era kontrolatuan

Ladix Arrosagarai

 XABIER LETONA BITERI

2019an hasi zen Ziburuko azoka eguneko ekitaldi gisa, baina azken urteetan azoka egunaz aparteko ekitaldiak antolatu izan dira inguruko herrietan ere: Azokaroa da. Ladix Arrosagarai Baltsan elkarteko kidearekin mintzatu gara Azokaroaren nondik norakoez. Ziburuko azokan 20 minutuko sei liburu aurkezpen izaten dira, eta 2022ko ekitaldian ohartu ziren ez zela nahikoa: “Horregatik, Joanes Etxeberri Ziburuko idazlearen aurkezpena egin genuen azoka egunetik kanpo, eta 35 bat pertsona bildu ginen Ziburun. Horrek erran nahi zuen azokatik at ere jendeak bazuela horrelakoen gogoia”.

2023an probatzen segi zuten eta bi ekitaldi gehiago antolatu zituzten: Rafa Rueda eta Gotzon Barandiaranen *Hitzen Ahairera*, eta Miren Azkarateren *Ikusezinak* liburuaren aurkezpena. Berriz ere ontsa hartuak izan ziren. Eta horrek 2024an Azokaldia antolatzeraz eraman zituen: “Azokak bere mugak hunkitu zituen, eremu eta denbora aldetik. Bi egunetara pasa? Ez, Baltsanen musu-truk aritzen gara eta pisuegi gertatuko zitzaigukeen. Lapurdi kostan arras guti gara euskal hiztunak, beraz, sortu behar dira momentuak euskaldunak batu, komunitatea indartu eta euskaraz goza dezagun”. Horregatik, aurreko hilabetean, maiatzean, azoka inguruko herrietara zabaltzea pentsatu zuten eta iazko edizioan lau ekitaldi egin zituzten Urruñan, Azkainen, Donibane Lohizunen eta Ziburun. “Lehen auzo ditugun herri horietatik datoz Ziburuko Azokara eta



APRIL ~ MAIATZEAN	Ordua	Liburu Aurkezpena	Liburularia
30. ORTZAIZE MENTA liburuaren	18.30	"HETERO"	UXUE ALBERDI EGILEAREN
7. ZIBURU Baltsan	19.00	"RR -6-ERRE(AH)ALA"	MAIALEN LUJANBIOREN ERREZITALDIA
16. URRUNA Bertoli	19.00	"BIHARRAREN HEGIETAN"	MADDI, AINHOA eta IKAS SARASUA eta JULEN LEZARIN ERREZITALDI MUSIKATUA
19. URRUNA Baita	19.00	"EUSKARAZ SORTUZ (DUIN) BIZI?"	MAHAI INGURUA XIMUN FUCHS (Artedrama, Azul) eta AMAGIOIA GURRUTXAGA (Lanartea)
23. AZKAINA Bili Toki	19.00	"GIZATASUN ARRANTZALE"	MIKEL EPALTZA EGILEAREN
28. DONIBANE LOHIZUNE Mediateka	19.00	"MASUSTA ERREXIMENTA"	EKAITZ BERGARRETXE EGILEAREN

guk ere zerbait itzuli behar genien, eta horrela berretsi dugu jendeak baduela interesa, 30-40 bat herri-tar bildu izan baitira ekitaldietan". Urruñan Ikastolako Euskaraz Bizi Batzordearekin antolatzen dituzte ekitaldiok, Azkainen irakurle taldekoekin eta Donibane Lohizunen AEKrekin: “Kezka berberak partekatzen ditugu”.

Eta 2025ean? Lehenik eta behin izen aldaketa gauzatu dute, Azokalditik Azokarora. “Aurten Euskaraldia maiatzera aurreratu da, eta ondorioz, ikusten genuen nahasgarria

gerta zitekeela Azokaldiarekin. Hortik dator izen aldaketa”. Eta bada bestelako aldaketarik ere, iaz auzo herrietara hedatu bazen Ziburuko azoka, aurten auzo herrialdetara hedatu da, eta Nafarroa Beherako Ortzaizen antolatu dute ekitaldi bat: Uxue Alberdi idazleak *Hetero* liburuaren aurkeztuko du Menta liburu-dendan.

Arrosagaraiak zehazten du Ziburuko azokak, bere xumean, izaera nazionala duela. “Baltsanek eta ARGIAk antolatzen dugu eta Euskal Herriko herrialde guztietatik datoz argitaletxeak eta jendea. Aurten Ortzaizera zabaltu gara eta, zergatik ez, datozen urteetan Bera, Lesaka, Irun edota Hondarribira: ez dugu muga hautsiko horrekin, baina gainditu bai, eta hori garrantzitsua da guhauren buruetan bereizten gaituen muga desagerrarazten joateko”.

Aurten lehenbiziz ere, bi hedabide ekitaldi baten bultzan jarri dituztela dio, horrela

Euskal Irratiak eta ARGIAk *Euskaraz sortuz (duin) bizi?*, mahai-ingurua antolatu dute Amagoia Gurrutxaga eta Ximun Fuchekin. “Horrelakoei ere eutsi nahi genieke, euskararen edota euskal kulturaren ingurumarian izan daitezkeen hausnarketak eta eztabaida esanguratsuak lantzeko. Euskarak egiten gaitu herri, eta kulturak herri bizi; beraz, sorkuntza lagundu behar dugu, bestela gure kultura folklorizatuko da. Azokaroarekin, Ziburuko azoka hazten doa pixkanaka, baina bere neurrian, era kontrolatuan”.